# AMONAREN KONTUAK

Paule neska txiki bat da, 7 urte ditu eta Bilbon bizi da gurasoekin eta amonarekin. Amona asko maite du, gaueko istorioak kontatzen dizkiolako. Animaliak asko maite ditu, eta amonari egunero kontatzen dizkio haien istorioak, gehien bat hegaztienak. Bere ametsa hegan egitea izan da beti danik, eta harrigarria iruditzen zaio nola animalia txiki batek hegoak astindu eta zeruan barrena hegan hasten den. Batzuetan asmatzea da bere ideia bakarra, oso azkarra da eta amonak beti sinisten du. Baina gaur izan da aldi bakarra amonak ez duena sinetsi. Paule goizeko zortzietan jaiki da pot-potik ez zelako eskolara joan behar. Gailetak esnetan bustitzen ari zela, hegaztiei buruzko istorio bat hasi da asmatzen amonari kontatu ahal izateko. Ez zitzaion ezer ere ez burutatzen, baina amona etorritakoan egunonak opa eta segituan burura etorri zaion lehen gauza esan dio.

- Amona! Egun on! Ba al dakizu...

- Gaur ez duzu eskolara joan behar?

- Gaur? Amona, gaur larunbata da! Beno, berdin dio, ba al dakizu zer ikusi nuen atzo?

- Zu beti zure istorioekin. Txori bat ikusi ahal zenuen?

- Bai, beno... Hegoak zituen eta hegan ari zen. Ipar-polotik zetorren pinguino bat zen! Nire urtebetetze eguna ospatu ahal izateko. Nire laguna da!

Amonak segituan gogoratu du bere bilobaren urtebetetzea aste barran datorrela, baina ez zuen beste ezer sinetsi. 82 urte zituela, ez zuen burua hain ongi, baina bazekien pinguinoak ez zirela ipar-poloan bizi, eta are gutxiago hegan egiten zutela. Gaztetan ornitologoa zen, eta hegaztiei buruzko gutxi daki. Paulek badaki animaliak maite zituela, baina ez daki hainbesteko adimena zuela haiei buruz. Amonak ez dio ilusioa kendu nahi, baina ez du bere bilobak gauzak asmatzerik nahi, horregatik kontatu dio pinguinoei buruzko egia. Paulek berehala aitortu du gezurra zela. Baina gau hartan pinguino txiki batekin egin du amets. Ametsean, pinguino jaioberri bat hegan egiten saiatzen hasten da, eta bere amari galdetzen dio ea zergatik zituen hegoak ezin bazuen hegan egin. Amak beti esaten zion bere buruari proposatzen zion gutxia lortu zezakeela, eta horrela egin zuen. Paule iratzartzean, bere amonari kontatu dio amestutakoa.

- Amona! Amona! Ez duzu inoiz asmatuko zer amestu dudan.

Amonak bikain ezagutzen du bere biloba, eta Paulek ez du espero amonak asmatu izana, baina hala egin du.

- Ea ba, uste dut... Pinguino batekin egin duzula amets. Egia al da?

- Nola izan zaitezke hain ona? Beti asmatzen duzu - Esan dio Paulek, harriturik.

- Ez al zenekien sorgina nintzenik?

Paule are gehiago harritu da, eta astelehenean lagunei kontatu die amonak esandakoa.
Lagunek ez dute sinetsi, baina amona Paulen bila joatean, galdera egin diote.

- Gezurra da Pauleri esan zeniona, ezta?

- Zer esan nion Pauleri, baina?

- Sorgina zarenaren kontua.

- Karkarkar! Ez, egia da. Nik bilobaren ametsetan sar naiteke.

Haurrak Paule bezain harriturik geratu dira, eta haien artean hasi dira hitz egiten haien amonei buruz.

- Nire amonak ezin du hori egin.

- Egia izan al da esan diguna?

- Ez dut uste, amonen kontuak halakoak izaten dira.

- Baina Paulen amatxekin bat etorri da.

- Hori egia da! Nik Paulen amona sinisten dut.

- Nik ere!

- Ba nik uste dut kontuak bakarrik direnik.

Gauean Paulek ezin izan du lorik egin bere amonagatik arduratuta. Eta bergana joan da gau erdian. Arduraturik hainbat galdera egin dizkio.

- Baina, zer motatako sorgina zara? Jan egingo nauzu? Gaiztoa zara? Magia egiten duzu? Erratzean egiten duzu hegan?...

- Paule, laztana, zu ez arduratu. sorgin maltzurrak ez dira existitzen. Haiek kontuak bakarrik dira. Benetako sorginak adimen handiko jendea gara, magia egiten dakigunok, baina gauza onetarako erabiltzen dugunok. Ez dugu zertan trapu zaharrik eraman, edo sudur puntan garo bat izan behar. Orain egizu lo, oso berandu da eta

Pauleek gauean lasai egin du lo, baina pinguino txikiarekin amestu du. Ametsean, pinguinoak esaten dio bere amonak diona gezurra dela, eta erakutsi ahal izateko bere urtebetetzea ospatzera joango dela

- Amona asto esan zenidana gezurra da, pinguinoek badakite hegan egiten.

- Etzt Paule. Ez nizun esan sorgina izanda denetarik dakidala?

- Gezurti hutsa zara, nire lagunak esan dit hona arte etorriko dela

- Egia dela diotsut!

Paule amonarekin haserretu da, baina aldi berean pozik dago bere urtebetetze festa ospatzeko gogoak dituelako. Bere lagunei kontatu die gertatutakoa eta denak harritu dira, Ander izan ezik, berak bazekien gezurra zela.

Gauean, berriz ere amets egin zuen, baina ez pinguino txikiarekin, bere amarekin baizik. Kezkatuta zirudien, Pauleri esan dio ez duela bere kumea aurkitzen, eta Paule urduri jartzen hasi da. Bat-batean itzartu egin da. Ordua ikusi eta goizeko zortziak dira. Gurasoak esnatzera joaterakoan ezin izan du sinetsi ikusi duena. Festa bat egin diote gurasoek urtebetetzea ospatzeko, baina... Amonaren ondoan pinguino txiki bat dago! Pauleek besarkada handi bat eman dio esanez:

- Banekien etorriko zinena! Baina amonak ez didan sinisten.

- Egia esanda, lanean aritu naizen 50 urteetan ez dut halakorik ikusi

Pauleek amestutakoa kontatu dio pinguinoari, eta pinguinoa bere amarekin oroitzean zoronak opa dizkio Pauleri eta hegan egin du amonak sinisten ez zuen Ipar Polora

- Banekien...